

Kutxabankek bere Auto Asegurua indartu du, eta % 100 era digitalean ere kontratatuko da

- Online kontratazio berrietan lehen urteko primaren % 15 itzuliko da, iraupen-konpromisorik gabe
- Kutxabank Generaliren Auto aseguru modu eskusiboan banatzeko partnerra da

2024ko azaroaren 21an. Kutxabankek indartu egin du Auto Aseguruaren eskaintza, kontratazio-prozesua digitalizatuz. Hemendik aurrera, % 100 digitalki egin ahal izango da Online Bankatik eta Banka Mugikorretik.

Autonomia ematen duen funtzionaltasun berri hori abian jartzeko, aseguru honen kontratazio digital berrietan lehen urteko primaren % 15 itzuliko da, iraupen-konpromisorik gabe.

Orain arte, Kutxabanken Online Bankak Auto Aseguruaren aurrekontuaren simulazioa egiteko aukera ematen zuen, eta orain handitu egiten da hori kontratazio-prozesu osoa egin ahal izateko.

Kutxabank Generaliren Auto aseguru modu eskusiboan banatzeko partnerra da

Poliza eta primetan hazkundera eta digitalizazio handiagoa

Kutxabankeko aseguru-arloak, urteko lehen bederatzi hilabeteetan, oso hazkunde nabarmena izan du ekoizpen berrian, bai polizetan, bai primetan: 91.810 poliza berri kontratatu dira, iaz denboraldi berean baino % 3,8 gehiago.

Segmentuen arabera, Auto eta Etxe aseguruaren portaera –produktu horien ekoizpen berriak % 10 eta % 20 hazi dira, hurrenez hurren– eta bizitza-aseguru eta bidaiako laguntza negozioen dinamizazioa nabarmendu ziren; hori guztia etxeko ezbeharrak digitalizatzeko prozesu gero eta handiagoan eta ‘call center’ bat sortuta, zeinak bezeroaren esperientzia hobetu duen.

2024ko irailean, aseguru-negozioak 125,5 milioi euroko ekarpena egin zion Kutxabanki.

Euskadin, Kutxabank Seguros liderra da negozio-bolumenari dagokionez Etxe eta Bizitza Aseguruetan (aurrezki-aseguruak izan ezik), bai eta negozio berriko primetan ere ehorzketa-aseguruaren esparruan ere.